

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bizitzaren gatza eta piperra



Amaia Alvarez Uribe



Nerea eta biok

LAURA MINGE

Txalaparta, 2015

Nerea eta biok 1994an argitaratu zuten lehen aldiz, eta 2015ean berriro plazaratu dute. 20 urte gehiagorekin berriro irakurtzeko aukera eman dit honek, hona hemen oraingo irakurketa. Isabel da protagonista, unibertsitateko literatura irakaslea, eta Nerea preso dagoen bere ikaslearekin trukatu-ko dituen gutunak dira nobela honen mamia. Bi ardatz ditu liburuak: Luisen absentsia eta Nerearen presentzia. Senarrak Isabel abandonatu du Ander eta Sara seme-alabak nerabe direla eta horrek krisia ekarri dio protagonistari. Orduan ikasle preso alai, indartsu eta sentibera bat agertu da protagonistaren egunerokoan gutunen bidez, bere kontzientzia piztuz eta bizitzara berriro ekarriz.

Zergatik (gatz barik), Panpox? Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox?* lanarekin erkatu daiteke bikotearen abandonua eta amatasuna dituelako hizpide barne bazarriketa darabilen emakume protagonistak. Gainera, diferentziaren feminismoan lerratutako ikuspegia dugu eta gizon-emakumeen izaerari buruz mintzatzean ikuspegi binarista dute biek. Protagonistak gizonaren falta sumatzen du eta bere bizitza gatzik gabekoa dela sentitzen du. "Maitalea bai, baina ez berriro gizon baten zerbitzari bihurtu" dio. Bakardadea nozitzen du beste emakume baten adiskidetasuna, laguntza eta berotasuna sentitzen hasten den arte.

Carol edo gatzaren prezioa. Lesbianismoa ere badago *Desira desordenatuak*-ean esan bezala. Bertan *islandinga* agertzen da emakumeen arteko harremanen marko literario gisa. Izan ere, harremanok heteroa-

rauaren kontrako erresistentzia irudikatu dezakete gizonik gabeko leku batean, gutunak kasu. Nerea eta Isabelen artekoa harreman konplizea da, maitasun platonikoa, errealitate zapaltzailetik urrun dagoen ahizpatasuna. Zineman estreinatu berri den *Carol* pelikula etorri zaigu gogora. Patricia Highsmithen *The price of salt* nobelan oinarritutako filmean ere emakume heldu eta emakume gazte baten arteko maitasun harreman samur eta misteriotsua agertzen zaigu, lesbianismoa literaturan maiz agertu izan den moldean. Beste emakume batenganako maitasun sentimenduen auto-kontzientzia agertzen zaigu: "Maitasuna da zugatik sentitzen dudana hau, distantzian eraikitako maitasuna, hitzez eginga, begiradarik gabekoa, laztanik bakoa. Beldurra ematen duen maitasun berria".

Marixor gatzaren atzetik. Kartzela ere oso presente dago, askatasun eza, konpromiso politikoa. Protagonistak bere bizimodua auzitan jarria ikusi du Nerearen agerpenarekin. Bere "bertan goxo" egoerari kritika da, lozorroan egon dena esnatzera etorri dira gutunok, hala, protagonistak gogoeta egiten du euskal gatazka eta emakumeen egoerari buruz. Yolanda Arrietak Marixorren ipuina kontatu zigun gatza aita baino garrantzitsua goa dela esanez, eta Laura Mintegiren lanean nolabaiteko berrespena topa dezakegu: zapalduak bere egoerari aurre egin eta hau iraultzeko pausoa eman behar dutela dio, maitasunaren bidez, hau baita, bere irudiko, aurrera egiteko motorra, bizirik sentitzeko beharrezkoa den gatza, "pasiorik gabe ez baitago ezer". ■